

TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

2.- EZIAGO POLIGONOAN EGINDAKO PARTZELEN ZATIKETEN ETA ZATIKETA HORIZONTALEN LEGEZTAPENA. (Txos. YZ 162_21)

2021eko ekainaren 8anXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX Industrias Urduri SL-ren izenean egun Eziago poligonoko 20, 18, 16, 14W eta 14 zenbakiak betetako partzelan egindako zatiketaren ondorioz egungo partzelen egoera azaltzen duen plano aurkeztu du, teknikari gaituak sinatua.

2021eko ekainaren 22an José Ramón García Díez-ek, Industrias Urduri SL-ren izenean, Eziago poligonoko 18. partzelako zatiketa horizontaleko aldaketaren eskrituraren berridazkia aurkeztu du.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

- Hernaniko Udalean indarrean den hirigintza araudia, Hernaniko Udalbatzak 2011ko apirilaren 11ean behin betiko onartutako Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Testu Bateratua da (GAO 90. zkia 2011-05-13). Aurrerantzean AASS.
- Eziago poligonoa 18 helbidea duen eraikina AASS-etako (UE)ZE.04 arean kokatzen da. Area horretako arau berezian jasotakoaren arabera egungo antolamendua finkatzen da. Antolamendu hori "Eziago poligonoaren Plan Partzialean" zehaztu zen eta 1967ko otsailaren 3an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Hirigintza Batzordeak.
- Aipatutako Plan Partzialak, Eziago poligonoko B izendaturiko sektorean, 13 partzela antolatzen zituen. Haien artean, 4. partzela (6.158 m²-koa) egun Eziago poligonoko 20, 18, 16, 14W eta 14 zenbakiak dituzten eraikinek betetzen dutena. Ordenantzetan, besteak beste, zatituz gero, gutxieneko partzela 800 m²-koa zela xedatzen zen.
- Aurkeztutako planoaren arabera, teknikari gaitu batek egindako egungo neurketa batena, Eziago poligonoko 18. zenbakiak betetzen duen partzelak 800,55 m² ditu eta, hortaz, arauetan xedatutako gutxienekoa du. Beraz, zatiketa legeztatzen da.
- Bestalde, 1967ko plan partzialak eraikinak lokaletan zatitzeko baldintzak aipatzen ez bazituen ere, egun indarrean den araudian (AASSetako 60. artikuluan), zatitutako lokalen gutxieneko azalera 200 m² (t)-koa izan behar duela xedatzen da. Katastroko datuen arabera, egun egindako zatiketa horizontalean Eziago 18.ean 6091566J finkak (12 m² (u)) ez du elementu independentea izateko gutxieneko azalera.
- Aurkeztutako Zatiketa horizontalaren aldaketako eskriturako berridazkian, Eziago 18ko eraikuntza honako elementutan zatitzen da horizontalki:
 - Lehenengo elementua: Beheko solairuko lokala 230 m²-ko azalera duena. Solairuarte bat du 96 m² dituena.
 - Bigarren elementua: Beheko solairuko lokala 250 m²ko azalera duena.
 - Hirugarren elementua: Goiko solairuko lokala 526,50 m² ko azalera duena. Solairuarte bat du 252,50 m² dituena eta sarrera eskailera independente baten bidez du.
- Proposatutako zatiketa horizontalak araudian xedatutakoak betetzen ditu eta hortaz, baimenagarria da.

Proposamena:

Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:

Hortaz, Eziago poligonoko B izendaturiko sektoreko Plan Partzialeko 4. partzelan 1977 eta 1982 urteen artean egindako zatiketak egungo Eziago poligonoko 20, 18, 16, 14W eta 14 zenbakiko partzelak osatzeko, aurkeztutako neurketa berrien arabera, araudian xedatutako betetzen dutela, haiek legezztatzea. Era berean, Eziago poligonoko 18. zenbakiko eraikinean proposatutako zatiketa horizontalak ere, Hirigintzako arauki orokorrean xedatutakoa betetzen duela, baimentzea proposatzen dut, honako baldintzapean:

- 1.- Hamar eguneko epean zatiketa horizontal berria ogasunean alta emateko U-4 dokumentua aurkeztu beharko da Udalean.
- 2.- Hilabeteko epean, Zatiketa Horizontal berria jasotzen duen eskritura aurkeztu beharko da Udalean.
- 3.- Behean adierazitako epean (4. Atala) 229,30 euro ordaindu behar dira. Kopuru hori ateratzen da indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatzearen ondorioz.

1.- Segregazio lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa: 229,30 €

- 4.- Ordaintzeko lekua eta epeak: Diru sarrera egiteko hilabete bat dago, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori agortzen denean premiamenduzko prozedurari ekingo zaio, eta ordaindu beharreko kopuruari errekargua gaineratuko zaio.

Lekua: laguntzeko entitateetan, horretarako honekin batera ordaintzeko-gutuna ematen da. Hirigintza lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa ordaindu behar da, eta eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga ere bai.
